





abaildu 'erori'	«Eta ene kantuaeren erritmoan abaildu zen eguna.»	(52)
abiantzadan 'indarrean, oldarrean'	«Ura abiantzadan doa larretan beherantz...»	(35)
adats 'ile multzoa, luzea'	«...eta bere adatsaren urrea urak zeramala zirudien.»	(112)
adur 'txistua, lerdea'	«...hautsa (...) soldaduen adurrekin batzen zen...»	(67)
agitu 'gertatu'	«...esaidak zeintzu diren beti berdin agitzen diren gauzak.»	(78)
ahalako 'besteko, adinako'	«...hauspo zaharrak ahalako bere bularretan...»	(113)
ahitu 'erabat nekatu'	«Gero, Presebal, estropozu egin eta lurrera erori da, ahiturik , arnasarik gabe...»	(10)
ahur 'esku barrua'	«Esku ahurretan bilduriko ura ezpainetara eraman zuen...»	(102)
ahuspez 'aurrez, ahoz behera'	«...hormaz bestaldera erori zen (...) lurrera ahuspez .»	(41)
aiduru 'itxaroten, zain'	«Horma zati soilak geratzen ziren zutik, zerbaiten aiduru bezala.»	(67)
aise 'erraz'	«...horma zulatua aise aurkituko ditek...»	(85)
akitu 'nekatu'	«...ezin gehiagoan lagundu dio bere andere akituari ...»	(16)
amoltsu 'maitasunezkoa, maitakorra'	«...eta laztan amoltsutan endregatu zen ezerezarekin.»	(107)
anpuluka 'tantaka, malkoka'	«Eta goizaldeetan ihintza erortzen da, anpuluka ...»	(52)
antigualean 'antzinategian'	«...ene ahizpak hondartzan arineketan, antigualean bezala...»	(49)
antzeman 'igarri, nabaritu'	«...ozta-ozta antzematen da emakume haren figura bere begi lausotuetan.»	(11)
apar 'bitsa'	« Aparra ez da errautsa.»	(52)
apika 'agian, beharbada, ausaz'	«... apika gizontto hura ere existitzen ez direnetakoa izanik...»	(43)
arestiko 'lehengoa, lehenagokoa'	«... arestiko bost kopa jada garbiak...»	(25)
armiarma 'aramua'	«Arratoi eta armiarma ugari dira beren bidaiaren lekuko.»	(88)
arnasestu 'arnasketa larria'	«Eta arnasestua lasaitu ezinik...»	(115)
arrago 'fragua (metalak urtzeko tegia)'	«—Ezpata hura arragoan sartua...»	(73)
artega 'urduri'	« Artega hartu nuen botila hura...»	(23)
asaldatu 'ikaratu, harritu'	«...Kainoi eztanda eta ur asaldatu en artean larritzen nintzen.»	(53)



asun 'osina (belarkia, hazkura eragiten)	«...doi-doi makurtuko du burua, asunek bezala, hotzikara sentitzean, eta laket zaio.»	(34)
atabala 'danbortxoa'	«...haurrak (...) atabala bere makilatxoaz jotzen du...»	(34)
atundu 'prestatu, apailatu'	«...gonbidatuen gelako ohea atundu behar duk, Fool.»	(78)
aztoratu 'kezkatu, arduratu, larritu'	«Dontzeilak (...) aztoraturik luzatzen dizkio hatzak heroeari...»	(17)
barrena 'zehir, gaindi'	«Zalu doaz tunel luzean barrena ...»	(88)
basoilar 'txori mota bat, basokoa'	«... basoilar habiaren baten xerka agian.»	(85)
bazkatu 'alatu, belarra jan'	«...belardiren batean bazkatzen ari da, agian...»	(13)
bederakatu 'zenbatu, kontatu'	«Denbora, gure bürrien gainean dabilalarik bethi bederakutzen dütü gure urrhats güziak...»	(7)
behelaino 'lainoa'	« Behelainoa egiten du.»	(92)
behiala 'lehen, aspaldi'	«...han dago behialako arratsaldea (...) leiho irekia eta su izeki berria...»	(33)
berbaro 'Hitzots isila,urruna eta motela'	«Batzutan entzun dut berbaroa hormaren bestaldean...»	(42)
bidenabar 'bide batez'	«Funtzionarioak, bidenabar , ez zion sinesten...»	(42)
birao egin 'madarikazioka aritu'	«...lantzean behin birao eginaz .»	(44)
borraia 'lore mota bat'	«... borraia lorez inguraturiko etxe batera...»	(89)
bozkario 'poza, zoriona'	«...gudu zahar irabaziaren bozkarioarekin .»	(16)
branka 'untzien aurrekaldea'	«Baina branka portura itzultzean...»	(52)
buztu 'puztua, bete-betea'	«...ilusioz buzturik , lurralde eta fatu ezezagunen baterantz.»	(56)
dandai 'zutik orekari eutsiz'	«...sukaldeko atea iragan eta lekorer a doa. Euripean, dandai geratzen da une batez ura senditzean...»	(34)
dirdira 'distira, leinuru'	«Bere begi zabalegiek dirdira berezia zuten...»	(25)
ditarea 'atzamar puntako josteko tresna'	«Amamak mahai gainean utzi ditu galtzak eta ditarea ...»	(34)
doi-doi 'apur bat'	Neskatila, doi-doi beldurturik...»	(25)
egurats 'atmosfera'	«Kainoien hotsek ikara erazten zuten eguratsa ...»	(65)
eihar 'idorra, lehorra'	«...orri eiharrak euriaren azpian ikaratu egiten dira...»	(34)
ele 'hitza, berbea'	«...ematen zuen beren eleak laratzean eskegi nahi zituztela.»	(74)




elezahar 'istorioa'	«Eta bere jaiotzako elezaharra zuen oroitzen gizonak...»	(118)
eman 'iruditu'	«... ematen zuen beren eleak laratzean eskegi nahi zituztela.»	(74)
emaro 'ugari, naharo'	«... emaro erortzen zaio euria...»	(35)
endregatu 'nahasi, korapilatu'	«...eta laztan amoltsutan endregatu zen ezerezarekin.»	(107)
erauzi 'indarrez atera'	«...enborrean gora igotzen da urgaina, dena erauziaz , dena eramanaz...»	(16)
erdietsi 'lortu'	«...unikornioa ikustea erdiesten dute.»	(13)
ernegu 'aspertu'	«...gizon biak, mahaitik altxatu egin ziren, ernegu aurpegiarekin.»	(27)
errainu 'izpia'	«Eguzki errainuak hostoen artetik sartzen dira...»	(9)
errari 'galdurik, batetik bestera'	«Arimak errari zebiltzan, eskaileretan behera eta eskaileretan gora.»	(27)
errime 'bizia'	«...oihu izugarri batzu aditzen ziren, errimeegiak ...»	(39)
erromes 'bidaiaaria'	«Presebal (...) erromes itsu batekin suertatu da bidean, eta elkarrekin doaz (...) estartan aurrera.»	(9)
errusinol 'urretxindorra (gauez kantatzen)	«...errusinolak beren kantuen matasa soltatzen ari direla.»	(9)
esnatu 'atzarri, itzartu'	«Gero, ohantze biguinean etzanik esnatu da...»	(11)
estali 'amodioa egin'	«...ez niakian ene arreba zela, gutiziatu nian, eta estali .»	(75)
estarta 'bideska'	«Presebal (...) erromes itsu batekin suertatu da bidean, eta elkarrekin doaz estartan aurrera.»	(9)
estropozu egin 'tupust egin'	«Gero, Presebal, estropozu egin eta lurrera erori da, ahiturik, arnasarik gabe...»	(10)
ezelako 'inolako'	«...oreinen bat iragaten da noizean behin ezelako babesik gabe.»	(12)
ezohizko 'ohi ez bezalakoa, arraroa'	«...erabat hutsik zegoen geltoki hura, ezohizko bakardadean.»	(39)
fatu 'zoria, adurra'	«...bele beltz eta lodi bat pausatu da dorreko almenetan, fatuaren seinale gisa.»	(13)
ferekatu 'laztandu, xerak egin'	«...oroitzapenak (...) lainoen moduan iragaten dira, laru edo ilunago, altu-altuak edo behekaldeak ferekatuaz ...»	(33)
gabirau 'txori mota, harrapakaria'	«Azken orenean, beti ibiltzen da gabirauren bat aidean, zerbaitengana jausteko gertu.»	(13)
gardentasun 'argitasuna'	«... gardentasuneraino garbitu nituen, ia xahutu arte.»	(25)
gertu 'prest'	«Azken orenean, beti ibiltzen da gabirauren bat aidean, zerbaitengana jausteko gertu .»	(13)
gibel 'ostea, atzekaldea'	«...korrika doa etxe handi batzuen gibiletik .»	(89)



goldatu 'makinatu, bueltatu'	«Lurrak goldaturik zirudien, baina ez laborarien lanagatik, lehergailuen urraduragatik baizik.»	(65)
gotor 'trinkoa'	«...bestaldetik zurrumurru gotor bat heltzen zen.»	(68)
gutziatu 'irrikatu, desiratu'	«...ez niakian ene arreba zela, gutziatu nian, eta estali.»	(75)
habaila 'harriak jaurtikitzeko tresna'	«Ia ezin da (...) ez bata ez bestea ikusi, Presebal habailez jaurtiriko harria bada...»	(10)
harpe 'leizea, kobazuloa'	«...hondartzako harpeetan aurkituriko hezurdura hura Orestes zenduarena zela...»	(117)
harzamar	«...brehala argitu dira bere harzamar aurpegiak.»	(87)
hatx (Bizk.) 'haitza, arroka'	«...ohetik ihalgitzeko indarrak bildu dituenean, leihoraino heldu da. Hatx urdin eta ezezagunak ikusiko ditu ortzemugan...»	(11)
hatz 'behatzak edo eta atzamarrak'	«Dontzeilak (...) aztoraturik luzatzen dizkio hatzak heroeari...»	(17)
hauspoa 'aire sorgailua, suari eragiteko'	«Gero, hauspoa hartu eta sugarrak berbizen entseiatu zen.»	(75)
haustear 'hausteko, apurtzeko moduan'	«Zergatik ari naizen eztarria haustear oihuka?»	(43)
hazkura 'hatz egiteko nahia, hazgalea'	«...haurraren betileetan hazkura egin erazteko...»	(33)
hilurrean 'hil zorian'	«Ene aurrekoetarik bat hilurrean kontsolatu nuen...»	(43)
hobi 'hilobia, barrunbea'	«...berriro ere hobian murgiltzeko.»	(51)
hondo 'sakona'	«...kolpe gotorrak heldu ziren denboraren hondotik (...) oroimena berriro ere antzinatora luzaraztera.»	(118)
horaildu 'horitu, heldu'	«...fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak hots xumea egiten du...»	(9)
hots 'soinua'	«...fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak hots xumea egiten du...»	(9)
hozkirri 'piska bat hotz'	«...uretara luzatu zuen eskua, ur hozkirri eta garbira...»	(101)
hutsal 'baliogabea'	«...sakon-sakonetik zuzendu zion begirada iluna, hutsala ...»	(114)
igorri 'bidali'	«—Beste inspektore bat igorri behar omen dute...»	(45)
igurikatu 'itxaron, espero izan'	«Hainbestean igurikaturiko agindua...»	(65)
igurtzi 'frotatu'	«...argiagatik tipituriko bere begiak igurtziaz .»	(26)
ihaldi 'jalgi, altxatu, jaiki'	«...ohetik ihalgitzeko indarrak bildu dituenean, leihoraino heldu da. Hatx urdin eta ezezagunak ikusiko ditu ortzemugan...»	(11)
ihintza 'garoa, goiztiriko ur tantak'	«Eta goizaldean ihintza erortzen da, anpuluka...»	(52)
itsas gurma 'laino itxia'	«...berak bere sorterriko itsas gurma oroitzen du.»	(85)



itsumutil 'itsuen laguntzailea, lazariloa'	«...begiak galdu dituztenak beren itsumutilekin itzuliko dituk beren sorterrira...»	(64)
izeki 'piztu, ixiotu, irazeki'	«...han dago behialako arratsaldea (...) leiho irekia eta su izeki berria...»	(33)
izpur 'apur bat, izpi bat'	«...bere adarra, dontzeilaren esku amoltsuetan dagoen artean, ez da mugitu izpurrik ere.»	(15)
izualdi 'ikara'	«Silio bat irten zitzaion, bat-bateko izualdian .»	(102)
jendeteria 'jende saldoa, multzoa'	«— Jendeteria urduria elkartetik sor liteke ilusio kolektiboa...»	(41)
kala hosto 'kala, lore zuria duena'	«Eta zuria zen anderea, kala hostoa bezain zuria.»	(102)
kausitu 'aurkitu, ediren, idoro'	«...burdinazko atea hertsirik kausituko dute.»	(93)
kolorge 'kolore gabea, zurbila'	«Zapata kolorgeak ...»	(112)
kurubilkatu 'batu-batu eginda jarri'	«...lo kuluxka bat egitera etzan zen zementoan. Kurubilkatu eta (...) bentzutu egin zitzaizkion betazalak.»	(45)
lakar 'sastraka'	«...erbiren bat irteten zen batzuetan lakarren artetik saltoka...»	(66)
lakar 'gogorra, ezatsegina'	«...esan zion gizontto hark ahots lakarrez .»	(42)
laket 'atsegin, gustagarri'	«...doi-doi makurtu du burua, asunek bezala, hotzikara sentitzean, eta laket zaio.»	(34)
langatu 'trankatu'	«... langatu egin ditu gazteluko ate guziak...»	(13)
lantzean behin 'noizik behin, noizean behin'	«... lantzean behin birao eginaz.»	(44)
larritu 'erori, murgildu'	«...kainoi eztanda eta ur asaldatuaren artean larritzen nintzen.»	(53)
laru 'argia / horia, beilegia'	«...oroitzapenak (...) lainoen moduan iragaten dira, laru edo ilunago, altu-altuak edo behekaldekoak ferekatuaz...»	(33)
lastargi 'suzia, tortxa'	«...eskuak lastargi gisa altxaturik eraman behar zituen...»	(51)
lausotu 'nahasi, lainotu'	«...ozta-ozta antzematen da emakume haren figura bere begi lausotuetan .»	(11)
leinuru 'distiratsu, dirdaitu'	«Bere begien nini gorriak (...) leinuru zeuden.»	(102)
lekore 'kanpoaldea'	«...sukaldeko atea iragan eta lekorera doa. Euripean, dandai geratzen daune batez ura senditzean...»	(34)
lepaustai 'hezur bat, klabikula'	«...hegal-hezurak lepaustaien azpian tolestu zitzaizkigun...»	(50)
linburtu 'murgildu'	«Elurra grisa eta zuria, linburtu eta erortzen...»	(84)
lizardi 'lizar basoa'	«... lizardia iragan dute...»	(10)
lo kuluska 'totalditxo'	«... lo kuluska bat egitera etzan zen zementoan. Kurubilkatu eta (...) bentzutu egin zitzaizkion betazalak.»	(45)



logale 'logura'	«— Logale nauk, Fool, egidak ohea.»	(79)
magal 'mazela'	«Eguzkiak (...) bere bidaiian munduko muino eta magalak berotu eta edertu egiten ditu...»	(9)
malkar 'eremu aldapatsua, altakurtsua'	«—Duela egun batzu bildu zintudan malkarrean ...»	(11)
maluta 'mataza'	«...elurrak zuriz koloratu nahi luke mundua, maluta handitan eroriaz, baina lurra ukitzean urtzen da.»	(83)
matasa 'korapiloa'	«...errusinolak beren kantuen matasa soltatzten ari direla.»	(9)
more 'tristeia, malenkoniatsua	«...sartzen nintzen taberna hartara egunero, ordu morean ...»	(19)
muino 'mendiska'	«Eguzkiak, (...) bere bidaiian munduko muino eta magalak berotu eta edertu ditu...»	(9)
nini 'betseina'	«Bere begien nini gorriak (...) leinuru zeuden.»	(102)
ohantze 'ohea'	«Gero, ohantze biguinean etzanik esnatu da...»	(11)
ohi 'izandakoa'	«...boxeolari ohien aurpegia zuen.»	(23)
oinaze 'sufirimendua, mina'	«...haurra, ur uherrean sasiatarra loturik, hotzez eta oinazez ...»	(35)
oinaztargi 'tximista, inisitua'	«Berehala, oinaztargi batek, suzko monstruo legez, jo du gazteluaren almena, eta erori dira harriak...»	(16)
okil 'txori mota bat'	«... okilak enbor azalak zulatzen ditu...»	(12)
ondu 'heldua'	«...sagar bat jan nahi nuke, hartuko al didazu onduren bat arbolatik?»	(10)
ontsa 'ondo, ongi'	«—Hik ontsa dakik kontaktzen, Fool...»	(76)
oratu 'eutsi, heldu'	«...Presebalek zuhaitz enbor bat oratu du.»	(16)
orein 'animalia mota, adarduna'	«... oreinen bat iragaten da noizean behin (...) ezelako babesik gabe.»	(12)
oren 'ordua'	«Azken orenean , beti ibiltzen da gabirauren bat aidean, zerbaitengana jausteko gertu.»	(13)
ortzemuga 'zeru muga, ostertz horma'	«...ohetik ihalgitzeko indarrak bildu dituenen, leihoraino heldu da. Hatx urdin eta ezezagunak ikusiko ditu ortzemugan ...»	(11)
oskarbi 'zeru garbia'	«Eta badoaz biak, beren arratsalde oskarbiko bidean.»	(17)
oskilaso 'txori mota bat, basokoa'	«...eta oskilaso bat hosto artean ezkutatua.»	(75)
ozta-ozta 'doi-doi, juxtu-juxtu'	«... ozta-ozta antzematen da emakume haren figura bere begi lausotuetan.»	(11)
sahats 'zuhaitz mota bat'	«...bidexkan barrena, sahatsera iritsi arte.»	(101)
setati 'tematia, egoskorra'	«Bakarrik zegoen, esku setatiren batek bere zangoak kareziatu arren...»	(104)



sugelandara 'sugandila'	« Sugelandarak bizi dira harrien arteko zirrikituetan.»	(12)
uhal 'larruzko hedea'	«...zalditik jaitsi, uhalak erromesari eman eta arbolara igo behar da (...) sagar umoak hartzera.»	(10)
uher 'lohia, kolore ilunekoa'	«...haurra, ur uherrean sasietara loturik, hotzez eta oinazez...»	(35)
umo 'heldua, ondua'	«...zalditik jaitsi, uhalak erromesari eman eta arbolara igo behar da (...) sagar umoak hartzera.»	(10)
urasea 'urez blai, busti-bustia'	«Bere gabardina urasea horman zintzilik utzi...»	(114)
urradura 'irekidura, urraketa'	«Lurrak goldaturik ziruen, baina ez laborarien lanagatik, lehegailuen urraduragatik baizik.»	(65)
xahutu 'garbi-garbi, ia desagertarazi'	«...gardentasuneraino garbitu nituen, ia xahutu arte.»	(25)
xede 'helburu, jomuga'	«...leiendako animalia ikusiz gero ez du hura harrapatzeaz beste xederik .»	(10)
xerka 'bila'	«...basoilar habiaren baten xerka agian.»	(85)
xilio 'ikarazko oihutxo'	« Xilio ito bat irten zitzaion, bat-bateko izualdian.»	(102)
xilio egin 'oihu bizia egin'	«...zakurtxoak xilio egin zuen...»	(65)
xistu 'ttua'	«... xistu lehorra lurrera behin eta berriro jaurti arren.»	(67)
xume 'ximplea, leuna'	«...fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak hots xumea egiten du...»	(9)
zalu 'arin'	« Zalu doaz tunel luzean barrena...»	(88)
zarratu 'gorde, entzerratu'	«...ganbaran paseatu eta negar egiteko zarratzen den andere hori...»	(75)
zendu 'hildakoa'	«...hondartzako harpeetan aurkituriko hezurdura hura Orestes zenduarena zela...»	(117)
zerena 'itsas neska'	«Uretara erori ginen zerenak .»	(51)
zio 'arrazoia, zergatia, kausa'	«...sugar itzalezinak ziren bere bengantzaren zioak ...»	(113)
zohardi 'argitasunean'	«...beren armen itzal beltza isladatzen zen zohardian ...»	(57)
zurbil 'kolorge, zuriska'	«Uhainek zerabilten ene amorante zurbila ...»	(55)
zurumuru 'marmarra, hots nahasia'	«...bestaldetik zurumuru gotor bat heltzen zen.»	(68)
zurrunbilora murgild 'konortea galdu'	«... zurrunbilo zurira murgiltzen nintzela.»	(27)